

# Nazionalismoa eta Hezkuntza Euskal Herrian

(Nationalism and Education in the Basque Country)

Zabaleta Imaz, Iñaki

UPV/EHU. Filosofia eta Hezkuntza-Zientzien Fak. Tolosa Hiribidea,  
70. 20018 Donostia  
i.zabaleta@ehu.es

BIBLID [1137-4446 (2008), 16; 227-240]

Jaso: 07.07.05

Onartu: 07.12.03

---

*Lan honetan, ardatz nagusia izan den irakaskuntzaren estalizazioa abiapuntutzat hartu ondoren, Estatu eta Nazioa bat etorraraztean eskolaren zeregina azpimarratuko da, kulturaren zein hizkuntzaren oinarritu nahi izan den komunitate-nortasuna gorpuzteko eginahalak bere biziko garrantzia duelarik. Estatuaren jardunbide politikoaren aurrean euskal nazionalismoak azaldu izan d(it)uen ikuspegia(k) zehaztea jotzen da azkenik, naziozintzari dagokionez hezkuntza-sistemaren kontrolak, euskal kulturak eta euskarak duten itzala nabarmenduz.*

*Giltza-Hitzak: Nazionalismoa. Hezkuntza. Irakaskuntza. Estatu. Nortasuna. Kultura. Hizkuntza. Euskal Herria.*

*En el presente trabajo, tras tomar como punto de partida la estalizacion de la ensenanza que ha resultado ser su eje principal, se subraya el papel de la escuela en la tarea de hacer coincidir Estado y Nacion, habiendo sido de enorme importancia sus esfuerzos por dar cuerpo a una personalidad comunitaria basada tanto en la cultura como en la lengua. Finalmente, se detalla el planteamiento (o planteamientos) del nacionalismo vasco ante la actuacion politica del Estado, destacando la importancia del control del sistema de ensenanza, la cultura vasca y el euskara cara a la construccion nacional.*

*Palabras Clave: Nacionalismo. Educacion. Ensenanza. Estado. Identidad. Cultura. Lengua. Pais Vasco.*

*Ce travail, en prenant comme point de depart la stabilisation de l'enseignement comme axe principal, met en relief le role de l'enseignement dans la difficile tache de faire coincider l'Etat et la Nation et ses efforts pour faconner une personnalite communautaire reposant tant sur la culture que sur la langue. Avec, pour terminer, la position (positions) du nationalisme basque face a l'action politique de l'Etat et l'importance du controle du systeme d'enseignement, de la culture basque et de l'euskara pour la construction nationale.*

*Mots Clé: Nationalisme. Education. Enseignement. Etat. Identité. Culture. Langue. Pays Basque.*

Gaiaren inguruko azken bi mende hauen ibilbide historikoaren berri eman baino, nahikoa ezaguna<sup>1</sup> den ibilbide horretan oinarritutako zenbait hausnarketa azaltzea da gure asmoa<sup>2</sup>. Eta abiapuntu gisa, Eli Gallastegiren adierazpen hau jarriko dugu mahai gainean: “sor ditzagun euskal errepublikak”. Euskal Errepublikaren helburuari begira sortu beharreko euskal eskolei buruz ari zen Gallastegi hitz hauek idatziak utzi zituenean<sup>3</sup>. Aukera genitzake Napoleon Bonaparteren beste hauek ere: “Estatua ezin da era egokian nazio gisa izendatua izan, jendeari umetatik erakusten ez zaion bitartean”<sup>4</sup>. Nazio frantsesa zen, noski, enperadoreak buruan zuena eta berari begira hezkuntza-sistemak jokatu beharreko funtzioa adierazpen horretan nabarmendutakoa. Gudari Gallastegi, gudaria Bonaparte; Estaturik ez duen euskal nazioaren aldeko armaren premiaz agertzen da bata, Estatu-nazio frantsesak esku artean dituen eta sortu beharko lituzkeenez bestea. Hitz asko behar ez dituzten adierazpen horietan nahikoa politikari laburbiltzen da gaiaren bizkar hezurra, alegia nazioak, estatuak eta hezkuntzak osatzen dutena.

Jakina denez, gure testuinguru hurbilari dagokionez, XIX. mendeak irakaskuntzaren estatalizazioari eman zion hasera Estatu-Nazioaren eraikuntza prozesuaren testuinguruan. Jokoan, besteak beste, irudikatzen zen nazioa –subjektu politiko gisa harturik– gorpuztea zegoen eta horretarako eraiki beharreko hezkuntza-sistema. Hobsbawn-ek<sup>5</sup> “nazio-fabrikatzeaz– hitz eggingo du eta estatuak martxan jarritako ingeneritza ideologikoaren<sup>6</sup> barruan kokatuko eskolak zeregin

---

1. Zuzenean edota zeharka gai honetara hurbildu diren lanen artean, hona hemen adibide interesgarri batzuk: ARRIEN, G.: *La generación del exilio. Génesis de las Escuelas Vascas y las Colonias Escolares (1932-1940)*. Bilbo : Onura, 1983. ARRIEN, G.: *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia (Escuela y autonomía. 1898-1936)*. Bilbo : Bizkaiko Foru Aldundia, 1987. BASURKO, F.; IZTUETA, P. (koor.): *Euskal Eskola Berria*. Donostia : E.H.U.ko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila, 1993. DAVILA, P.: *La política educativa y la enseñanza primaria en el País Vasco, 1860-1930*. Donostia : Ibaeta Pedagogía, 1995. DAVILA, P. (koor.): *Las políticas educativas en el País Vasco durante el siglo XX*. Madrid : Biblioteca Nueva, 2004. IZTUETA, P.: *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*. Donostia : Utriusque Vasconiae, 2000. IZTUETA, P.: *Euskal irakaskuntza autonomia aroan (1983-1994)*. Donostia : Utriusque Vasconiae, 2000. FERNANDEZ, I.: *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*. Bilbo : U.E.U., 1994. MATEOS, T.: *Ikastola edo eskola publikoa: euskal nazionalismoaren hautua*. Gasteiz : Eusko Jaurlaritza, 2000. ZABALETA, I.: *Euskal Nazionalismoa eta hezkuntza (1895-1923)*. Leioa : UPV/EHU, 1998.

2. Jardunaldi hauetara beste lan batean nazionalismoa eta hezkuntzari buruz egindako hausnarketa orokorra ekarri nahi izan dugu eta eztabaidarako gure iritziz funtsezkoa den eta sarritan oharkabean pasatzen usten den gaia mahai gainean jarri, baina oraingoan Euskal Herrian azkeneko mende hauetan gertatu izan dena aintzat harturik: (ZABALETA, I.: *Nazioa eta hezkuntza-sistema espainiarren sorrera*. Bilbo : U.E.U., 2002; 9-28).

3. Adierazpen hau Gallastegi idatzita utzi zuen argitaratu gabeko dokumentu batean aurkitu daiteke.

4. Bonaparteren hitz zehatzak honako hauek dira: “Mientras no se le enseñe a la gente desde su más tierna edad..., el Estado no puede ser denominado con propiedad una nación” (KEDOURIE, E.: *Nacionalismo*. Madrid : Centro de Estudios Constitucionales, 1988; 63).

5. Hobsbawn-ek interesgarria den aukera eskaintzen du historian zehar hezkuntzak eta nazionalismoak duten elkarren arteko lotura erakusteko. Ikus HOBBSAWN, E.J.: *Naciones y nacionalismo desde 1780*. Barcelona : Edición Crítica, 1991.

6. Ibidem; 101.

horretan jokatu beharreko lana. Hobsbawn-en antzera, Smith<sup>7</sup> “Estatu zientifikoz” arituko da edota “Estatu-Gestoreaz” Chatelet eta Pisier-Kouchner-ek<sup>8</sup>. Azken finean, gaiaren ardatza Estatuaren legitimazio-teknologia dela esan genezake, non hezkuntzak Estatu-nazioa sortzeko ezinbesteko garrantzia duen. Alegia, Estatu eta Nazioa bat etorrarazteko beharra egozten da Estatuaren lapikoan; behar horren eraginez, eta irakaskuntzaren gaineko erabateko kontrola pausoz pauso ezarri, Estatuak zeregin integratzailea eman zion eskolari, beste batzuekin batera, tresna nazionalizatzaile egokienetarikoa bihurtuz. Eginahal horretan Estatuak nazioak eskaintzen zuen komunitate-nortasunean oinarri sendoa izan zuten. Hain zuen ere, eta hezkuntza-sistemaren eremuan kokaturik, irudikatzen den komunitate-nortasuna eta bertan kulturak eta hizkuntzak duten lekua dira gure hausnarketaren oinarri nagusia.

Espainia zein Frantzia bete-betean islatzen da Navarik Estatu-Nazioaren sorreraren inguruan egiten duen analisia: bi Estatuak hizkuntza amankomunak eta hezkuntza-sistema amankomunak sortu zituzten oso argi zehaztuta zeuden estatu-mugen barruan lege sistema amankomunak ezartzen saiatu eta ezarri zituzten aldi berean<sup>9</sup>. Egia da, modernizatzeko prozesuan kokatu beharreko premia ziko kultur homogeneitateak halako neurriak ezartzen zituela argudiatu izan dela, baita gizarte modernoak alfabetatua izatea eta eskolaren bidez transmititutako kultura homogeneoa edukitzea. Estatuaren jokabidea zurriz aldera jo dezakeen Gellner-en ikuspegi ezagun honek, nabarmen utziko du, edozein eran, kulturak eta hizkuntzak duten garrantzia hezkuntza-sistemaren bidez Estatuak buruturiko nazionalizatzeko-prozesuan<sup>10</sup>.

7. Smith-en ustez –eta hau fenomeno orokorra litzateke mendebaldeko Europan– Estatuak hezkuntza-sistema ezartzen du bere gobernupean dagoen lurraldea benetako nazioa izan dadin, hots, nazio erreala bihurtu dadin (SMITH, A.D.: *Las teorías del nacionalismo*. Barcelona : Ediciones Península, 1976; 209. Lan berean erabiliko du “Estatu zientifikoa”aren kontzeptua; 319-325).

8. CHATELET, F.; PISIER-KOUCHNER, E.: *Las concepciones políticas del siglo XX*. Madrid: Espasa Calpe, 1986.

9. Navariren ikuspegi dagokion testuinguru orokorrean kokatzeko, ikus zer dioten hitzez-hitz: “El Estado creó lenguas comunes y sistemas educativos comunes, al mismo tiempo que impuso sistemas legales comunes en el marco de límites estatales claramente establecidos. Creó tarifas aduaneras estatales en sus fronteras, deudas estatales y bancos estatales que administraban fondos en todo el Estado. Y creó burocracias nacionales y ejércitos nacionales que socializaron sectores de población de diferentes regiones y clases sociales” (NAVARI, C.: “Los orígenes del Estado Nación”, in TIVEY, L.: *El Estado Nación*. Barcelona : Ediciones Península, 1987; 52). Irakurketa honek Marx eta Engels-en analisi ezagunaren antza du: “La burguesía suprime cada vez más el fraccionamiento de los medios de producción, de la propiedad y de la población. Ha aglomerado la población, centralizado los medios de producción y concentrado la propiedad en manos de unos pocos. La consecuencia obligada de ello ha sido la centralización política. Las provincias independientes, ligadas entre sí casi únicamente por lazos federales, con intereses, leyes, gobiernos y tarifas aduaneras diferentes, han sido consolidadas en una sola nación, bajo un solo gobierno, una sola ley, un solo interés nacional de clase y una sola línea aduanera”. (Manifiesto del Partido Comunista. Moscú : Editorial Progreso; 41).

10. Hausnarketarako interesgarria izan daitekeelakoan, hona hemen Gellner-en adierazpen esanguratsua: “desprovista de caparazón político, la cultura intentará inevitablemente crear ese Estado, y rediseñar las fronteras políticas para garantizar su existencia, sin la cual carecería de la infraestructura educativa y cultural para la supervivencia de una cultura moderna escrita”. (GELLNER, E.: *Naciones y nacionalismos*. Madrid : Alianza 1988; 347).

Estatu frantsesak eta espainiarrak etengabe bilatu izan dute Estatu eta herri-tarren arteko lotura, kontrolpean izan duten lurraldeko populazioaren Estatuare-kiko identifikazioa sortuz edota indartzuz. Hobsbawn-en nazionalismoari buruzko irakurketa orokorra geurea ekarriz, esango genuke bi estatuak etengabeko harre-mana sortu izan dutela –edo horretan saiatu izan direla– herritarra eta Estatu-Nazioaren artean, azkeneko honek dituen ordezkarien bidez (postaria, polizia, eskolako irakaslea, soldaduak...), identifikazio gune nagusia –leialtasunarena barne– nazioan aurkitu behar delarik. Alegia, nazioa espainiarrak/frantsesak bat egingo dute herri edota komunitate sentimenduarekin bat-egite hori posible egingo duten ezaugarriak ezarriz; edo beste era batean esanda, nazioarekin bat egingo duen irudikatutako komunitateari gorputza eman<sup>11</sup>. Tivey-ren<sup>12</sup> planteamenduetan oinarrituz, esango genuke bai Estatu frantsesak bai Estatu espainia-rrak erronka bati heldu behar izango diotela: komunitate-nozioa gauzatu beha-rean aurkitu dira eta helburu honekin frantsesak zein gaztelarak, baita amankomuneko kulturak, funtsezko garrantzia hartzen dute. Finean, nazioa osa-tzen omen duten herritarren batasunera zuzendutako Estatu-jardueraren testui-n-guruan kokatu behar dira Frantziak eta Espainiak buruturiko hezkuntza-politika eta alde horretatik hizkuntza/kultur batasunak Estatu bakoitzaren politika erraz-ten du.

Bistan da, Euskal Herriari dagokionez, bilatu izan den batasun hori ez dela egon, ez dela –edozein eran– erabatekoa suertatu, ez behintzat Estatuaren politika nahi bezain eraginkorra gertatu izan ez denean (zentzu horretan Iparralde...). Dena den, Frantziak eta Espainiak irudikaturiko batasuna egon ez denean, bata-suna helburu bihurtu izanda. Asmo horrekin, besteak beste, ezarri izan dira gure-an uniformeak izan diren hezkuntza-sistema nazionalak, uniformizazioak erraztu egiten baitie Estatuari kultur eta hizkuntza batasunaren aldetik beharrezkoa izan duten integrazioa. Deutsch-ek adierazten duen moduan, indartsua den Estatuak herria uniformeago egiten du, eta herri batuak gehiago indartzen du Estatu<sup>13</sup>. Alde horretatik, bai herri batasunari dagokionez baita Estatu-indarrari dagokio-nez, nabarmena da eraginkortasun maila ez dela berdina izan Bidasoaren bi aldeetan.

## **Estatuak eta kultur identitatea**

Estatua, egitura politiko gisa, herritarrek osatzen (omen) duten gorputzari lotzen zaio; baina gorputz horrek nolabaiteko sendotasuna behar du (eta ez due-nean, sendotasun batez hornitu behar da). Alde horretatik, Frantzian eta Espainian, kultur identitatearena funtsezkoa gertatu da komunitate nazional bakarraren (frantziarra/espainiarra) nozioa sortzeko bidea eskaintzeari dagokio-nez, sendotasuna ematen baitio nazioaren definizioari. Nazioa, subiranotasun politikoaren oinarri izaki, nazioak lurralde mugatu bateko herritarrek bere baitan

---

11. Hobsbawn-en hitz zehatzak geurera ekarriz, “dar el salto de comunidad existencial al de “comunidad imaginada” que ligara con la nación” (HOBBSAWN, E.J.: Op. cit.; 99).

12. TIVEY, L.: “Estados, naciones y economía”. In: TIVEY, L.: Op. cit.; 98.

13. DEUTSCH: *El nacionalismo y sus alternativas*. Buenos Aires: Paidós; 25-26.

biltzen dituelarik, herritarrek osatzen duten kolektiboak dituen ezaugarriekin identifikatzen da. Horien artean, Breully-k<sup>14</sup> nabarmentzen duen bezala, kultur identitatearena azpimarratu beharko litzateke. Hala, Frantziak eta Espainiak, beharrezkoa izan zaien –eta zaien– batasunak neurri handi batean orokorra den kultur batasunean aurkitu izan du oinarri garrantzitsua. Rocker-en analisisa aintzat harturik, esango genuke, bakar bakarrik beren buruari mesedegarri gertatu izan diren kultur adierazpenen alde agertu direla, beraiek ezarritako mugaz haratago joan eta arriskutsuak izan daitezkeen aurka jo izan duten aldi berean<sup>15</sup>.

Komunitate politiko haundiaren, nazioaren, parte izatearen uste osoa indartzen saiatu dira Frantzia eta Espainia herritarrengan kontzientzia nazionala errotzen ahaleginduz hezkuntza-sistemaren bidez. Herritarrek dagokien komunitatearekin –nazioarekin bat egiten duen komunitatearekin– apurto ezinezko lotura izango lukete, berak ahalbideratzen baitie hiritartasunaren aldetik ezinbestekoa zaien ispilua. Beste era batera esanda, kultura identitate-elementu garrantzitsua den neurrian, Frantziak eta Espainiak beren muga barruko herritarrak politikoki soldatu izan dituzte –edo horretan saiatu dira behintzat– frantsesa/espainiarra (omen) den nazioaren inguruan nazioarena omen den kulturaren iturrik edanaraziz. Bi Estatuaren egoera, oso ondo dakigun bezala, oso interesgarria gertatzen baita, izan ere kultur ezaugarri bereziko komunitate ezberdinak integratzen dituzte, sarritan irudikatu izan duten kultur komunitate bakarraren ideia kinka larrian jarritz. Alde horretatik, Estatu hauen aldetik jarduera sistematikoa igar daiteke, estrategia politikoak zein administraziokoak direla medio, besteak beste urteetan eta urteetan hezkuntza-sistemaren monopolioa kultur asimilaziorako tresna gisa erabiliz. Ezin da ezkatatu, bai Frantzia baita Espainia ere kultur horien garapena baldintzatu, indargabetu edo –eta ez gutxitan– itotzen saiatu izan direla (gure etxera begiratzea baino ez dago), beharrezkoa izan zaien kultur homogeneousitatea kolokan jar zezaketen neurrian, beti ere Estatu-nazioari funtsezkoa zaion identifikazio oinarri indartsu hori ahultzeko arriskuan ikusi izan dutenean.

Hausnarketarako bide erakargarria eskaini dezakeelakoan, Estevak<sup>16</sup> erabiltzen duen barne-kolonialismoaren formula geurera ekartzea ausartuko gara. Horren arabera, hasiera batean hutsean politikoa izan zitekeen Frantziak eta Espainiak ezarritako menperatze-faseak bere gaina joko zukeen kultur kolonialismoaren fasearekin. Beste modu batez adierazita, erabateko menperatzea kultur eremuko menperatzearekin borobilduko litzateke, menpekotasun politikoa pairatu behar izan duten herriak kultur menpekotasunaren dominazio-subjektuak

---

14. Esan behar da naturalizat jotzen duela Breully-k aipatutako loturaren ezarpena (BREULLY, J.: *Nacionalismo y Estado*. Barcelona : Ediciones Pomares-Corredor, S.A., 1990; 362).

15. Kultura eta nazionalismoaren arteko harremana aztertu duen Rocker-ek era ezin argiagoan azaltzen du Estatuaren jardunbidea: “El Estado sólo se muestra favorable a aquellas formas de acción cultural que favorezcan la conservación de su poder; pero persigue con odio irreconciliable toda manifestación cultural que va más allá de las barreras por él trazadas y puede poner en litigio su existencia” (ROCKER, R.: *Nacionalismo y cultura*. Madrid : La Piqueta, 1977; 99).

16. Estevak ikuspegi erakargarria eskaintzen duelakoan gaude –nahiz eztabaidagarria izan zuzen-zuzenean heltzen baitio gaiaren mamiari: zein da Estatuaren jarrera kulturari dagokionez identifikazio polo kontrajarriak sortu daitezkeen Estatu-Nazioaren markoan bera nazioanizduna denean (ESTEVA, C.: *Estado, etnicidad y biculturalismo*. Barcelona : Ed. Península, 1984).

bihurtuz, hain zuzen. Egia da, gure Estatu “bizilagunen” eraginkortasuna ez dela beti erabatekoa gertatu, baina iruditzen zaigu ezin dela ukatu kulturaren erabilpen nabarmena egin dutela azken bi mende hauetan aldaezinezko batasun politikoaren ikur gisa; alegia, Frantzia eta Espainian, barne kohesioa helburu, kultura erabili izan da sakoneko ezberdintasunik dagoenik ukatzeko, era horretan funtsean bakarra omen den komunitate frantses/espainiarra banaezinezko nazioaren zutabetzat hartuz<sup>17</sup>.

Esandakoa laburbilduz: espainiarra/frantsesa den kultura, komunitate espainiarra/frantsesa; komunitate barruko elkartasun-harremanak eta ezberdintasunak sortzen/bereizten dituen mugarik ez (guztiok gara espainiarrak/frantsesak eta horrek egiten gaitu berdin), entitate politikoa, kultur nortasuna duen entitate politikoa, Estatu (Espainia/Frantzia). Gaiaren mamia hau baino ez litzateke izango: besteak beste urte askotako ibilbidean hezkuntza-sistema kontrolpean eduki izan dutelako, Frantzia eta Espainiaren aldetik kulturaren erabilpena egon denik ezin da ukatu, hain zuzen gizarte-kohesioa sustatzea helburu duen erabilpena. Alde horretatik, ikur nazionalak eta kultura nazionala (literatura, historia...) pertsonen bizitzaren parte izanarazteko eskolak duen gaitasuna azpimarratu behar da, maila pribatu edota lokalaren eta maila publikoa edota “nazionalaren” arteko bereizketa apurtzen baitu<sup>18</sup>. Kultur ezberdintasunek identitate/nortasun ezberdintasunak sor

---

17. Nahiz eta estatuaren zentripetismoa ez dela beti erabatekoa jakin, Gellner-en hitzak erabiliz, begien bistan dugun egoera hauxe dela esan daiteke: *“utilización de la cultura como símbolo de unidades políticas persistentes, y la utilización de su homogeneidad para crear un sentido... de solidaridad, de movilidad, de continuidad, de falta de barreras profundas, en el interior de las unidades políticas de que se trate”* (GELLNER, E.: “El nacionalismo y las dos formas complejas de la cohesión en las sociedades complejas”. In: DELANNOI, G.; TAGUIEF, P.A.: Teorías del nacionalismo. Barcelona : Paidós, 1993; 350).

18. Adibidez, curriculum nazionalaren barruan duen leku nagusia kontuan harturik, ikus dezagun zein izan daitekeen historiak bete beharreko zeregin ideologikoa (hemen historiaren adibidea erabili badugu ere, curriculumaren barruan aurki daitezkeen beste ikas-arloekin ere gauza bera egin genezake; esate baterako, geografiarekin: ez da batere zaila lurraldeari ematen zaion garrantzi politikoa ikustea, hau zuzenean talde –edota komunitate-identitatearekin, nortasunarekin lotzen delarik; hona hemen, adibidez, lurralde-identitateari buruzko, Estatuaren legitimatzea dela eta, Urwin-en hitz hauek: *“el objetivo principal de todo Estado: preservar la integridad territorial y garantizar dentro de sus fronteras la legitimidad de sus existencia”* (URWIN, D.W.: “Territorio e identidad”. In: *Revista de Occidente*, 1983, 26; 9). Curriculumarena –eta honen barruan kulturarena, nazio-identitatea sortzeko unean duen eraginarengatik- gai gatazkatsua zein neurritaraino izan daitekeen ikusteko, kontutan hartu besterik ez dago, adibide esanguratsua erabiltze arren, hain egoera korapilatsua bizi duen Ipar Irlandaren kasua (ikus FARRE, S.: “Culture, curriculum and educational policy in Northern Ireland”. In: *Language, culture and curriculum*, 1991, 4; 43-58).

Historiaren adibidera itzuliz, betetzen duen zeregin ideologikoa dela eta, Breully-k esaten duen moduan, *“la historia proporciona identidad”* (BREULLY, J.: Op. cit., 365). Zentzu honetan, historia sinbolikoaz hitz egin beharko genuke, garrantzitsuena, erreala izan denentz alde batera utzirik, momentuko bere eraginkortasuna baita helburu modura bilatzen dena, iragana eta oraina lotuz, “nazioaren” partaideak “nazioaren historian” bere ispilua aurkitzen duen neurrian. Nazioaren historia nazio-nortasunaren isla litzateke, eta nazioaren eta bere partaideen arteko lotura ezarriko luke. Hain zuzen, Breully-k aipatzen duen autorreferentziako sinbolismoak bat egingo luke Esteva-ren hitz hauekin: “La historia “propia” brinda un contexto de significación básico en lo que a la identidad se refiere” (ESTEVA, C.: Op. cit., 31). Ohar luze honi amaiera emateko, hona hemen, kasurako, Esteva-k berak historiak kultur arloan duen dimentsioari buruz jasotako Spicer-en iritzia: “la dimensión histórica es parte de todo sistema cultural, y mientras hace posible que el individuo disponga de...

ditzaketen heinean, Frantziak eta Espainiak kultur uniformizazioaren bidea hartu izan dute eskolaren eremuan populazioaren kultur-homogeneizatzea sorrarazteko asmotan, “berdintze” lan hori funtsezkoa baita Estatuarentzat eta bere egonkortasunari begira. Kultur aniztasuna ezaugarri nagusia den testuingurutan interesgarria da antzematea zein den kulturari ematen zaion balioa; alegia, kultura batek edo bestek izan dezaketen statusa edo prestigio maila oinarritzkoa bilakatzen da Estatuak gorpuztu nahi izan duten komunitate-nortasunari dagokionez. Zentzu horretan, hezkuntza-sistemaren barruan bere espazioa izateak kulturaren statusa edota prestigio maila erabat baldintzatuko luke. Euskal kulturak hezkuntza-sistema frantsesean eta espainiarrean historikoki izan duen hutsaren hurrengoko presentziak diogunaren adibide ezin hobea eskainiko luke.

### **Euskal nazionalismoa, Estaturik gabeko nazioa eta kultur/hizkuntz nortasuna**

Euskal nazionalismoak ikaragarritzko kapital politikoa izan du eskuartean kulturaren eremuan euskal komunitatearen kultur nortasun berezia oinarritzeko garaian, euskal nazioa aldarrikatzeari dagokionez funtsezkoa izan dena hain zuzen. Hau da, euskal nazioa eta berau osatuko lukeen populazioaren arteko lokarria euskal komunitate nortasunarekin lotuta dagoen euskal kultur identitatean aurkitu izan du euskal nazionalismoak. Alegia, euskal kultur nortasunak euskal nazioaren oinarritzko ardatza den euskal komunitate nazionalaren ikuspegiari berebiziko sendotasuna eman dio, ezinbestekoa bihurtuz kontzientzia nazionala eraikitzerakoan. Hala ere, euskal nazionalismoa erronka nagusi bati erantzuten saiatu izan beharrean aurkitu da, izan ere kultur garapena neurri batekoa ala besteko izan funtsezkoa bilakatzen da Estatu frantsesa eta espainiarren eskutik burutu izan den asimilazioari aurre egiteko. Jakina denez, bi estatu hauen sukaldeetan euskal kultura kultura denik ukatzeko edota kultura gisa gutxiesteko politika ugari egosi izan da. Besteak beste, oinarritzkoa irakaskuntzaren eremuan buruturiko politika, kultur identitate orokorra (frantsesa/espainiarra) indartu nahian honi aurre egingo liokeen edo zalantzan jarriko lukeen euskal kulturari eskolaren ateak itxiz edota, eraginkortasun politikoa indargabetzeko asmoz, presentzi folklorikoa eskainiz. Euskal nazionalismoak, garai eta era ezberdinetan, aurre egin (nahi) izan dio kulturak Estatuaren eskuetan jokatu izan duen oinarri legitimatzailearen logikari, esate baterako hezkuntza-sistemaren kontrola arazo nazionalaren ardatz gisa azalduz.

Zalantzarik gabe, behin eta berriro azpimarratu behar da kulturaren kapital politikoaren garrantzia; izan ere, kultura bakoitzaren egoera zuzenean loturik baitago bere etnia edota nazioaren egoera politikoarekin. Hala, Estatu-nazioarekin bat egiten ez duten nazioek horren pareko kultur garapena baldin badute, asimilazioari aurre egiteko egoeran hobean egongo dira. Ezaguna den legez –eta geu-

---

...un legado integrador para su acción social, supone para él la oportunidad de continuarlo y evolucionarlo. Sin este legado, el individuo carecería de medios de experiencia cultural y, como es obvio, tendría que iniciar la historia cultural por sí mismo y sin antecedentes” (SPICER, E.H.: *Persisten cultural systems*. In: ESTEVA, C.: Op. cit., 31).

reari dagokionez azkeneko mendeetako historiari begiratzea besterik ez dago-, Estatuaren aldetik –ahal duen neurrian bederen– erreakzioa bat-batekoa da eta mespretuzko etiketak sortzeari ekiten dio (zenbat alditan ez ote dugu entzun euskal kultura “sektarioa”, “tribala” dela –bestelako izenlagun “goxoagoak” ez aipatzeagatik–). Honen zergatia oso sinplea da: edonolako kultur nortasun bereziak aurrez aurre egiten du kultur identitate orokorraren kontra, eta hau Estatuarentzako izugarritzko zama politikoa izan daiteke, kolokan jartzen baitu beraren oinarri legitimatzailearen logika. Rokkan eta Urwin-ek dioten bezala,

it may be true regionalist demands, of whatever kind –euskal nazionalismoaren aldarrikapenak, esate baterako–, are potentially traumatic for a state –nabarmenagoa gure kasuan (eragin-kortasun gaitasuna legoke jokuan) estatu espainiarrari dagokionez–, under certain circumstances their political impact can be negligible<sup>19</sup>.

Aldarrikapen horien artean (nazionalismoarentzako baldintza egokietan, jakina), kulturarenak kolokan jar dezake Estatu monolitikoa, eta hori, Esteva-k dioen moduan, Estatuak garbi asko dakien zerbait da:

Toda idea de diversidad o de particularidad cultural es a la larga racionalizada como enemiga de la cohesión interna del Estado porque tiende a desarrollarse como otra identidad<sup>20</sup>.

Bistan da, beste edozein kulturak bezala, euskal kulturak iraun nahi badu, babes politikoaren beharrean aurkituko dela nahitaez, babes politiko horrek, orokorrean kultur azpiegituraz gain, hezkuntza-azpiegitura ziurtatuko baitio. Alde horretatik, osatzen den katea aintzat harturik (kultura/nazioa, nazioa/egitura politikoak, egitura politikoak/hezkuntza-sistema, hezkuntza-sistema/kultura), euskal nazionalismoarentzako nahitaezkoa suertatu da hezkuntza-sistema era batean edo bestean kontrolatu nahi izatea euskal kulturak hezkuntza-sisteman lekua izan dezan, euskal kultura euskal nazioaren zutabe garrantzitsuenetarikoa den neurrian.

---

19. ROKKAN, S.; URWIN, D.W.: *The politics of territorial identity. Studies in European regionalism*. London: SAGE Publications; 1982, 426.

20. ESTEVA, C.: Op. cit., 110. Egia da kultura ezberdinek topo egiten dutenean –Estatu nazioaskodunen kasuan, adibidez- Estatuak kultura horien balioa pareka dezakeela; baina guk esango genuke –irakurketa klabe politikoetan eginez gero–, guztiz behin-behineko moduan egingo lukeela, testuinguru politikoak hala bultzaturik. Hau esatera garamatzen arrazoia hauxe da: gure ustez –behin baino gehiagotan aipatu dugun Esteva-rekin bat eginez– Estatuaren azken helburua uniformizazioa da, monokulturalismoa, hori batasun idearen garaipen gisa ulertu behar delarik. Horrela, Estatuak kultura ezberdinen arteko harremana ontzat hartzen badu, Estatuaren kulturarentz doan integratze-prozesua bideratzen duelako da. Oro har, Estatu-Nazio moduan –edota, testuinguru politikoak eraginda, Estatu nazioaskodun moduan– aurkezten zaigun Estatuaren barruan dauden nazioen eskubideak, Estatuaren menperatze-helburu eta nahiekin bat egiten ez dutela esango genuke. Azken finean, argitu egin behar genuke noiz hitz egiten den Estatu nazioaskodunetz, kontzeptu honek sakoneko azterketa ilundu ez dezan: a) Estaturik gabeko nazionalismoek Estatu-Nazioarekin bat egiten ez duten nazioen presentzia aldarrikatzen dutenean, Estatu horrek beste nazio batzuk integratzen dituela adieraziz; b) Estatuak, testuinguru historikoak bultzatuta (askotan beste nazionalismoen eraginez) nazio-aniztasunaren errealitatea onartzen duenean (harmonikoa den neurrian, noski), hain zuen Estatuaren beraren egitura arriskuan ikusten duenean. Edonola ere, esan behar da ez direla gutxi beren helburuen muga ofizialki aintzat hartzen den Estatu nazioaskodunaren markoan kokatzen duten mugimendu nazionalistak (ez ote da hau euskal nazionalismoarekin gertatu izan dena eta gertatzen dena?).



Hizkuntzaren gaiarekin, kulturarenarekin egin dugun antzeko irakurketa egin daitekeelakoan gaude. Rocker-ekin batera, esango genuke hizkuntza-komunitatearena funtsezkoenatarikoa dugula ideologia nazionala oinarritzen dituzten elementuen artean<sup>21</sup>. Nazioaren izaera naturalaren inguruko “ustea” dela eta, nazio-integrazioaren suan irakiten ari den gaia dugu hizkuntzarena. Kontua da Estatuek funtsezkoa izan zaien nazio-integrazioari begira, beren menpeko lurralde osoan identitate nazional amankomuna sortzea izan dutela helburu eta frantsesa eta gaztelera identitate-elikagai oinarritzkoak izan direla. Alde horretatik uler daiteke Hobsbawn-ek hizkuntzari eskaintzen dion garrantzia, berak aipatzen duen ingeniari-tza sozial horren barruan duen indarrarengatik, maila sinbolikoan duen indarrarengatik hain zuzen<sup>22</sup>.

Komunitatearena dugu berriro aintzat hartu beharreko gaia. Jakina denez, hizkuntza edozein giza taldearen lokarri indartsua dugu eta askok hizkuntza-komunitatean ikusiko dute nazioaren ezagarririk funtsezkoena. Bai Espainiari, baita Frantziari, beharrezkoa gertatu zaie komunitate-identitatea eraikitzea eta hizkuntza izan da batasun zutabe nagusia. Horretarako –arrakasta maila berdina izan ez bada ere– herritarren homogeneizazioa bultzatzen saiatu dira hizkuntza nazionalaren itzalpean. Sarritan azpimarratu izan da gizartearen modernizazioak/garapenak ezinbestekoa egin duela hizkuntza batean burutu beharreko populazioaren heziketa eta hizkuntza nazionalarena aukera guztiz pragmatikoa balitz bezala aurkeztu izan dela, beharrari erantzungo liokeena soil soilik<sup>23</sup>. Baina guk ondo asko dakigu –eta hau ahaztea ez da komeni– nahitaezko neurri mesedegarri gisa aurkeztu izan den eskola-hizkuntzaren aukerak “amnesia” eragiten duela. Gellner-ek dioen bezala, guztiz garrantzitsua da herritar bakoitzak normalizatua eta zentralizatua den hizkuntza oinarritzko eskolan ikastea; baina eskolan irakasten ez den hizkuntza ahazteak, edota behintzat gutxiesteak, ez du garrantzi txikiagorik<sup>24</sup>. Historia, gurea barne, integratze-prozesuan hizkuntzak (frantsesak eta gaztelera, guri dagokigunez) izan duen protagonismoaren berri ematen diguten adibideez josita dago. Ezin da ukatu, hizkuntzaren gaia politikoa den kultur asimilazioaren prozesuan kokatu behar denik; gurean, bai Frantziak, bai Espainiak, asimilazio prozesu horretan harturiko neurri garrantzitsuenetarikoen artean, hizkuntzari dagokiona dugu. Noski, asimilazio mailaren arabera gertatu izan da lorturiko kohesio-gradua, eta arrakastatsua izateak ala ez era nabarmenean baldintzatu du euskal gatazka nazionala pizteko aukera/arriskua (euskal herrialdeen egoera zein den eta zein izan den ikustea baino ez dago).

21. Zehatzak izateko esan behar dugu Rocker-en ustez, garrantzitsuenetarikoa baino, garrantzitsuenena dela: *“De todos los elementos que se han mencionado para cimentar una ideología nacional, la comunidad del idioma es seguramente la más importante”*. (ROCKER, R.: Op. cit., 345).

22. HOBBSAWN, E.J.: Op. cit., 122.

23. Hobsbawn-en azaltzen duen legez, *“la “lengua nacional” raras veces es un asunto pragmático, y menos todavía desapasionado, como demuestra la poca disposición a reconocerla como conceptual, presentándola como histórica e inventando tradiciones para ella”*. (HOBBSAWN, E.J.: Op. cit., 104).

24. GELLNER, E. (1993): Op. cit., 349. “Amnesiaren” gai hau aintzat hartu beharko litzatekeelakoan gaude, izan ere, Gellner-ek berak aitortzen duen moduan, *“la cultura de un hombre, el idioma en que ha sido formado y en el interior del cual es efectivamente empleable, son su posesión más preciosa, su carta de acceso a la plena ciudadanía, a la dignidad humana y a la participación social”*. (Ibidem, 347).

Edozein eran, ezin da ukatu gizarte moderno baten testuinguruan hizkuntzak “berez” duen nahitaezko balioa. Alde horretatik interesgarria iruditzen zaigu “hizkuntza egokia”ren inguruan zerbait esatea, gizartearen garapenarekin aurre egiteko gai den aldetik. Zentzu horretan, hizkuntzaren erabilpen ideologiko hutsak arreta berezia duelakoan gaude eta, gure testuinguruari dagokionez, euskal nazionalismoak ez gutxitan egin izan duen erabilpenak bereziki. Neurri handi batean “hizkuntza egokia”ren arrazonamendua ontzat harturik, euskara erabili izan du nazio identitate, nortasun edota parte izatearen elementu gisa, baina kultur hizkuntza sortzeari uko eginez, maila handi batean bederen. Eta zergatik diogu “hizkuntza egokia”? Badirudi hizkuntza ardatz nagusitzat hartuko duen uniformizazioak behar “objetiboari” erantzuten diola: gizartearen garapenarekin aurrera egiteko egokiak diren hizkuntzak behar omen dira eta Estatuak “nazioaren” hizkuntzaren alde egingo du apustu. Ezin da ukatu testuinguru ekonomikoak aparteko eragina duenik –ezta duen garrantzia gutxietsi ere–, eta azkeneko bi mende hauetan industrializazioak, merkatuak..., zeresan handia dute horri dagokionez. Baina, Balibar-ek eta Laporte-k dioten bezala, garapen ekonomikoa gainegitura juridiko-politikoaren arabera ere gertatzen da, eta horrek badu alderdi juridiko-linguistikoa, hain zuen ere Estatuaren markoan gauzatzen dena<sup>25</sup>: Estatu barruko herritar guztientzat lege berbera, herritar guztientzat hizkuntza berbera. “Hizkuntza egokiaren” arazoa ez da, beraz, testuinguru “objetiboari” erantzuteko gaitasunean berez neurtzen den zerbait.

Ezin zaio benetan gaiari heldu Estatuak hizkuntzen inguruan erabakiak hartu izan ez balituzte bezala. Gurean, beste testuinguru batzuetan gertatu den legez, estatu frantsesak eta estatu espainiarrak lotu behar izan dute nazioaren ideologia hizkuntza nazionalaren ideologiarekin (Frantzia, nazioa; frantsesa, hizkuntza nazionala / Espainia, nazioa; espainola/gaztelera, hizkuntza nazionala). Benetakoa den ala faltsua den baino gehiago, lotura hori eraginkorki nola gauzatu den ikustea interesatzen zaigulakoan gaude. Alde horretatik, gure inguruko estatuak hartu izan dituzten erabaki politikoaren eragin determinatzailea nabarmendu litzateke. Izan ere, erabaki politikoekin zuzenean bat egiten duen hezkuntza-sistemaren arloan kokatu beharrean gaude, eraturako eskola-egiturarik gabe ezin baita aipatutako lotura hori (nazioaren ideologia/hizkuntza nazionalaren ideologia) materialki gauzatu; eta hori ez baita posible izan frantses estatua eta estatu espainiarraren eskusartzerik izan ezean.

Aipatutako Balibar-ek eta Laporte-k diotenez, eskola egitura sortu aurretik hizkuntza nazionalak ez du orokortua, egonkorra, eraturik den izaera materialik<sup>26</sup>. Alegia, ezingo genuke esan frantsesa/gaztelera hizkuntza nazionala direnik (mai-

---

25. Hona hemen, hitzez-hitz, Balibar-ek eta Laporte-k diotena: *“las condiciones que permiten el desarrollo de un mercado nacional –capitalista– no dependen únicamente y enteramente de la “infraestructura”, sino también de la superestructura jurídico-política, la cual incluye también un aspecto jurídico-lingüístico de este proceso tendencial, que hace ir a la par la constitución de un mercado nacional con la uniformización lingüística”* (BALIBAR, R.; LAPORTE, D.: *Burguesía y lengua nacional*. Barcelona : Avance, 1976; 60.

26. *Ibidem*, 116. Ez genuke aipatu gabe utzi nahi gure ustez garrantzi handia duen gai honen beste alde bat; Estatuak badu zer esanik oso eztabaidagarria den gaiaren inguruan, alegia, erabilpen publikorako hizkuntzaren ahozko adierazpenaren eta hizkuntz idatziaren gaien.

la ideologiko hutsean ez bada behintzat) hori ahalbideratuko duen hezkuntza-sistema sortu, eraiki eta garatu baino lehenago; hots, Estatu hauek irakaskuntzaren eremuan nazio/hizkuntzaren inguruan politika jakin bat burutu ezean. Kontua da hizkuntza funtsezkoa gertatu dela frantses estatua eta estatu espainiarraren batasunari dagokionez; hizkuntza-batasunak Estatuaren jarduera errazten du, eta ez dagoenean –Frantziak eta Espainiak adibide aparta eskaintzen dute alde horretatik– helburu bilakatzen da. Gakoa honako hau delakoan gaude: frantzesak eta gaztelarak bazuten eta dute Estatua, eta frantsesa eta gaztelera Estatu frantsesaren eta Estatu espainiarren “hizkuntza nazionalak” ziren eta dira. Eta testuinguru honetan ohar gintezke –ezagunak diren ezberdintasunak izan baldin badira ere– irakaskuntzan frantsesak eta gaztelarak azken bi mende hauetan izan duten presentzia zein neurritaraino den guztiz garrantzitsua –ez izateak, edota zein neurritakoa, garrantzia duen bezala– eta presentzi hori ezin dela ulertu, besteak beste, irakaskuntzaren eremuan bi estatu horiek burutu izan duten politika kontutan hartu ezean.

## Euskara eta euskal nazionalismoa

Frantsesak eta gaztelarak hezkuntza-sisteman izan duten eta duten presentziak duen protagonismoa ikusirik, nazioa/hizkuntza nazionalaren inguruko diskurtso ideologikoa eraikitzeari dagokionez, zer geratu da euskal nazionalismoarekin?, zein neurritaraino osatzen du hizkuntza/hezkuntza-sistema binomioak euskal nazionalismoaren (ala –en?) ikuspegiaren (ala –en?) ardatz nagusienetarikoa bat?

Orokorrean, eta abiapuntu gisa, arestian komunitate nortasunari buruz aipatutakoa baliagarria zaigula esan genezake. Laburbilduz, euskarak oso indartsua den identitate efektua du eta izan du euskal gizartean, eta hau horrela izan den –eta den– heinean bai Estatu espainiarrak bai Estatu frantsesak bilatu izan duten identitate uniformearen aurka egin du. Horrela bakarrik uler daiteke, kulturaren gaiarekin gertatzen den antzera –era nabarmenagoan ez bada–, bi Estatu hauek –Estatu-Nazioaren hizkuntza ez den heinean– euskararen konpetitibitate politikoa ezabatzeke egin izan dituzten saiakerak<sup>27</sup> (gogoan izan egoera hoberenean ere euskara eskubideen linboan dugula). Jokatu izan dute –izan den ala ez beste kontu bat da– euskara gatazka-iturri balitz bezala, gatazka politikorako iturri, “nazioaren” izana bera ere arriskuan jarriko lukeen meatsua.

Estatu-nazioari –eta ez diogu Estatuari– aurre egiteko indar nabarmena izan duen giltza izan da euskara euskal nazionalismoaren eskuetan; identitate kontrajarriak –zenbaitetan uztartu nahi izan badira ere– azalarazteko baliagarria, azkenean euskal nazioa eta nazio frantsesa/espainaiarra bereizteko bidea eskaini izan dio. Alegia, sarritan maila ideologiko hutsean geratu bada ere –kultur nortasunaren elementu ideologiko apaingarria–, euskara euskal nazioaren funtsezko ezaguarria izan da euskal nazionalismoarentzat. Ondorioz, hezkuntza-sistemarekiko

---

27. Rokkan-ek eta Urwin-ek zera diote: “*language is the key resource for many who stress ethno-nationalism. A distinctive means of communication is a powerful political resource for a potential movement, and one which easily leads to political conflict*” ROKKAN, S.; URWIN, D.W.: Op. cit., 428.

ezinbesteko erreferentzia puntua izan da euskara eta kultur asimilazioari begira Estatuak ezarri nahi izan duten monopolioari amaiera emateko asmotan irakas-kuntzarena borrokagune politiko garrantzitsua bihurtu izan da –zer neurritaraino garrantzitsuenetarikoa eztabaidagarriagoa gertatzen da–. Euskal nazionalismoak aurre egin behar izan dio aipaturiko “amnesiak” sortzen duen euskararekiko urruntasunari hizkuntza bera ahaztu edota gutxiesten den heinean –urruntasun afektiboa barne, honek euskal komunitate-nortasunaren apurketarekin duen loturarekin; zer esanik ez euskara arrotza bihurtzeraino iristen denean–. Izan ere, nola bada iraun bizirik, nola izan frantsesa eta gaztelaniarekin lehiatzeko gai (hau da, Estatu-nazio frantsesa edota espainiarraren “kultura nazionalako” hizkuntze-kin lehiatzeko gai) hezkuntza-sisteman euskarak presentziarik ez badu? Nahitaez, aurrez aurre egingo dugu hezkuntza-sistemaren kontrolaren gaiarekin eta, ondorioz, kontrolak duen dimentsio politikoarekin. Hala, euskarak historikoki pairatu duen izan ala ez izatearen arazoak maila politikoan aurkituko du erantzuna; alde horretatik, euskal nazionalismoaren ikuspegitik argi azaldu da babes politiko guztiz beharrezkoa zaiola euskarari, horrek soilik eskaini eta ziurta baitiezaioke, besteak beste, bizirik irauteko premiazkoa zaion hezkuntza-egitura.

Eta, bi hitzetan, zein eratakoak izan dira, esandakoan esanda, euskal nazionalismoak azken bi mende hauetan egin izan dituen hautu politikoak? Eskema orokorra erabiltze arren, Coakley-ek zehazten dituen hiru sekuentziaz baliatuko gara<sup>28</sup>. Alde batetik, euskal nazionalismoa sortu zen unean Estatu-nazio espainiarrak<sup>29</sup> bere legitimazioarako erabiltzen duen hezkuntza-sistemaren aurkako erreakzioa. Bestetik, gizarte hedapen handiago lortu izan duen neurrian, hezkuntza-sistemaren kontrola lortzeko asmoz edota alternatibak sortzeko asmoz egina hal ezberdinak bideratuko dituen fasea. Azkenik, euskal nazionalismoa bere hezkuntza-proiektu nazionala gauzatera zuzenduko litzatekeen sendotze fasea. Azkeneko honi helduz, galdera gordina luzatu beharko genukeelakoan gaude: iritsi al da euskal nazionalismoa hezkuntza-proiektu nazionala gauzatzeko aldera pauso sendorik ematera? Nahiz soilik, jardunaldi hauen testuinguruan, hausnarketarako proposamen gisa plazaratzeko asmoz izan, erantzuna ematen ausartuko gara eztabaida piztu dezakeelakoan.

Jakina denez, sortu zen momentu beretik, euskal nazionalismoa hezkuntza-sistema espainiarraren eragin “nazionalizatzaileaz” jabetu zen. Eskola espainolizatzeko tresnatzat hartu eta euskal nazioaren oinarri nagusiak diren euskal kultura eta euskararen areriotzat jo zuen, Euskal Herriaren geroak kinka larriaren zegoela ohartaraziz. Bi hitzetan esanda, eskola Estatuak ezarri dominazioaren aurpegia litzateke eta eskolaren aurka jotzeak Estatuari aurre egiteko bidea. Borroka horretan irakasleria, curriculum, irakaskuntzaren kontrola..., eraso-helburu nagusienetarikoak

---

28. COAKLEY, J. (arg.): *The social origins of nationalist movements. The contemporary west european experience*. London : SAGE Publications, 1992. Coakley-ren sekuentziak Hroch-en eredu oinarritzen dira, hain zuzen Puhle-k Euskal Herriaren kasuan erabilitakoa.

29. Apropos diogu espainiarra eta espainiarra soilik, izan ere –ikuspegi historiko batetik– hezkuntza-sistema frantsesak ez du –salbuespenak salbuespen– euskal nazionalismoaren “arreta” adierazgarririk piztu. Hitz egin dezagun argi: Ipar Euskal Herriak euskal nazionalismoaren liturgian du bere lekua, baina “dotrina” maila gaintzeke du azkeneko honek eta praxis politikoari dagokionez –eta hezkuntza eremuan nabarmen- urriak dira emandako urratsak.

izan ohi dira euskal nazionalismoaren diskurtsoan. Erreakzioaz gain –eta Coakley-ren lehenengo fasetik bigarrenera pasako ginateke–, hezkuntza-sistema kontrolatu ahal izateko –neurri batean bederen– edota, nazioaren biziraupena helburu, alternatibak sortu eta bultzatzeko ekinbide politikoa ezin da ukatu: horra hor Autonomia Estatutuaren aldeko euskal nazionalismoaren apustu historikoa –zenbait herrialdetan neurri bateko “arrakasta” lortu duena– edota, esate baterako, gerora agortua geratuko zen Bizkaiko auzo eskolen sorrera, E.I.B.ren inguruan antolatuko ziren euskal eskolak eta ikastolen mugimendua. Egja da, bestalde, unibertsitatearena arazo nazionalizatzaile izan dela, ugariak izan direla ere euskal unibertsitatearen aldeko adierazpenak edo, adierazgarriagoa izan daitekeena, gaur goizekoak ez diren euskal hezkuntza-sistema nazionalaren aldekoak. Adibideak adibide, ezin da esan, baina, hezkuntza-proiektu nazionala gauzatze aldera urrats argirik eman duenik euskal nazionalismoak. Herrigintza edota nazioigintza bezalako kontzeptuak barra-barra erabili bai –besteak beste, hezkuntzaren auziari heltzeko garaian– eta hauen premia lau haizetara zabaldu ere, baina Coakley-ren hirugarren fasera iristeko gure ustez (berdin zein eratako aurpegia azaltzen duen) ezinbestekoa den alderdia ez du aintzat hartu euskal nazionalismoak: estatugintza, alegia. Saio honen hasierako Gallastegiren hitzak erabiliz, zera adierazi nahi dugu estatugintza kontzeptua eztabaidarako proposatzen dugunean, euskal nazionalismoak –defendatu izan duen euskal nazioaren alde jardun bada ere– ez du balizko hezkuntza-proiektu nazionalari begira euskal errepublika helburu izan.

## BIBLIOGRAFIA

- ARRIEN, G.: *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia (Escuela y autonomía. 1898-1936)*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1987.
- ARRIEN, G.: *La generación del exilio. Génesis de las Escuelas Vascas y las Colonias Escolares (1932-1940)*. Bilbo: Onura, 1983.
- BALIBAR, R.; LAPORTE, D.: *Burguesía y lengua nacional*. Barcelona: Avance, 1976.
- BASURKO, F.; IZTUETA, P. (koor.): *Euskal Eskola Berria*. Donostia: E.H.U.ko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila, 1993.
- BREULLY, J.: *Nacionalismo y Estado*. Barcelona: Ediciones Pomares-Corredor, S.A., 1990.
- CHATELET, F.; PISIER-KOUCHNER, E.: *Las concepciones políticas del siglo XX*. Madrid: Espasa Calpe, 1986.
- COAKLEY, J. (arg.): *The social origins of nationalist movements. The contemporary west european experience*. London: SAGE Publications, 1992.
- DAVILA, P. (koor.): *Las políticas educativas en el País Vasco durante el siglo XX*. Madrid: Biblioteca Nueva, 2004.
- DAVILA, P.: *La política educativa y la enseñanza primaria en el País Vasco, 1860-1930*. Donostia: Ibaeta Pedagogía, 1995.
- DEUTSCH: *El nacionalismo y sus alternativas*. Buenos Aires: Paidós.
- ESTEVA, C.: *Estado, etnicidad y biculturalismo*. Barcelona: Ed. Península, 1984.
- FARRE, S.: “Culture, curriculum and educational policy in Northern Ireland”. In: *Language, culture and curriculum*, 1991, 4; 43-58.

- FERNANDEZ, I.: *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*. Bilbo: U.E.U., 1994.
- GELLNER, E.: "El nacionalismo y las dos formas complejas de la cohesión en las sociedades complejas". In: DELANNOI, G.; TAGUIEF, P.A.: *Teorías del nacionalismo*. Barcelona: Paidós, 1993.
- GELLNER, E.: *Naciones y nacionalismos*. Madrid : Alianza, 1988.
- HOBSBAWN, E.J.: *Naciones y nacionalismo desde 1780*. Barcelona: Edición Crítica, 1991.
- IZTUETA, P.: *Euskal irakaskuntza autonomia aroan (1983-1994)*. Donostia: Utriusque Vasconiae, 2000.
- IZTUETA, P.: *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*. Donostia: Utriusque Vasconiae, 2000.
- KEDOURIE, E.: *Nacionalismo*. Madrid: Centro de Estudios Constitucionales, 1988.
- MARX; ENGELS: *Manifiesto del Partido Comunista*. Moscú: Editorial Progreso.
- MATEOS, T.: *Ikastola edo eskola publikoa: euskal nazionalismoaren hautua*. Gasteiz: Eusko Jaurjaritz, 2000.
- NAVARI, C.: "Los orígenes del Estado Nación". In: TIVEY, L.: *El Estado Nación*. Barcelona: Ediciones Península, 1987.
- ROCKER, R.: *Nacionalismo y cultura*. Madrid: La Piqueta, 1977.
- ROKKAN, S.; URWIN, D.W.: *The politics of territorial identity. Studies in European regionalism*. London: SAGE Publications; 1982.
- SMITH, A.D.: *Las teorías del nacionalismo*. Barcelona: Ediciones Península, 1976.
- SPICER, E.H.: *Persisten cultural systems*. In: ESTEVA, C.: ESTEVA, C.: *Estado, etnicidad y biculturalismo*. Barcelona: Ed. Península, 1984.
- TIVEY, L.: "Estados, naciones y economía". In: TIVEY, L.: *El Estado Nación*. Barcelona: Ediciones Península, 1987.
- URWIN, D.W.: "Territorio e identidad". In: *Revista de Occidente*, 1983, 26; 5-18.
- ZABALETA, I.: *Euskal Nazionalismoa eta hezkuntza (1895-1923)*. Leioa: UPV/EHU, 1998.
- ZABALETA, I.: *Nazioa eta hezkuntza-sistema espainiarraren sorrera*. Bilbo: U.E.U., 2002.